

# Nu!

www.noaiaa.com



www.noaiaa.com  
web gunea ere, kalteturik



# Euskaldunak, salbuespen egoeran

Itxia, baina ez isildua

# Zatoz gurekin lanera!

Iñaki Errekondo - Ana Altuna - Iñaki Esnaola - Xabier Arregi - Olatz Matxain - Koldo Huegun - Pelex - Nagore Segurola - Olatz Altuna - Aingeru Esnaola - Ainhoa Arrospide - Karlos Zabala - Amaia Kasasola - Leire Orbegozo - Garikoitz Udabe - Itziar Illarramendi - Mikel Usabiaga - Iñaki Aizpuru - Ana Mari Zumeta - Jose Antonio Altuna - Juanxoto Roteta - Xabier Orbegozo - Eider Jauregi - Ibai Arrieta - Isidora Navarro - Joxe Gurutz Bengoetxea - Itziar Dorronsoro - Agurtzane Solaberrieta - Igor Alkorta - Ramon Iparragirre - Irati Arzalluz - Ana Zinkunegi - Jorge Aizpuru - Juan Tapia - Mikel Alkorta - Aloña Pulido - Uxue Errasti - Andoni Udabe - Maitre Irazusta - Mikel Zubelzu - Nerea Kamino - Haritz Jauregi - Joxe Luis Sagardia - Koldo Letxundi - Daniel Arrieta - Mari Jose Uribe - Asier Iturralde - Jokin Rezola - Iker Manterola - Kepa Unanue - Paulino Ibargoien - Iñaki Berradre - Iraitz Lizaso - Arantxa Goenaga - Joxe Agustin Zulaika - Rosa Zubeldia - Jaione Azpiroz - Ane Loidi - Prexen Egileta - Enrique Huizi - Markel Olaizola - Josu Aranberri - Iker Arrastoa - Bittor Iribar - Marisa Alejandro - Gema Olasagasti - Belen Olasagasti - Joxe Lorenzo - Nekane Segurola - Mariñe Olasagasti - Karlos Harto - Esteban Roteta - Joakina Balerdi - Joxemi Aburuza - Bakarne Segurola - Kinttin Segurola - Alejandro Tapia - Luismari Bengoetxea - Miren Unsain - Joxe Mari Lizaso - Joxe Torregarai - Joxe Ramon Sarasola - Pili Manterola - Mikel Beristain - Joxe Ramon Ibarguren - Prontxio Egileta - Lurdes Zinkunegi - Arkaitz Portularume - Maria Azkonobieta - Eli Udabe - Pako Alkorta - Juanjo Olaizola - Ainara Leizaola - Joxemi Peñagarikano - Garbiñe Errekondo - Albaro Bruño - Oskar Uribe - Mikel Artola - Karmele Hevia - Ainhoa Azpiroz - Zalao Leoz - Aitziber Unanue - Martin Alustiza - Nerea Erauntzetamurgil - Doltza Begiristain - Labrit Zabala - Xanti Illarramendi - Pedro Mari Matxain - Agustin Lizaso - Patxi Puertas - Xebas Kardenas - Karmele Muxika - Olaia Ubeda - Iratxe Begiristain - Joxe Mari Arzallus - Maritxu Lorea - Nagore Leoz - Maria Jesus Del Pico - Amagoia Mujika - Arantxa Alegria - Hiba Zumeta - Edurne Eskudero - Luis Mari Irazusta - Igon Iribar - Ina Borda - Felix Olasagasti - Juan Mari Bengoetxea - Maite Lasa - Ainara Agirre - Ibai Arrieta - Niko Bengoetxea - Nerea Goizueta - Hilario Exeberria - Ana Zinkunegi - Julian Bengoetxea - Ana Urdangarin - Larraitz Izagirre - Justo Pulido - Andoni Aizpeola - Jon Aizpuru - Harkaitz Iparragirre - Irati Miguel - Ana Labaka - Koldo Lizaso - Karlos Martin - Ana Tello - Joxe Mari Sarasola - Iker Artola - Kaki Arkarazo - Kerma Errekondo - Ana Flores - Joxe Mari Arrospide - Martxelo Sanchez - Iñaki Lataillade - Carlos Zabala - Martin Leoz - Xabier Mikel Errekondo - Ramon Solaberrieta - Nikolasa Mesa - Manu Aranburu - Aintzane Aizpuru - Iñaki Zumeta - Begoña Solaberrieta - Aitor Udabe - Arkaitz Rezola - Olatz Leoz - Mattin Zinkunegi - Aloña Azpiroz - Ainhoa Gutierrez - Jone Eizmendi - Joxeli Arostegi - Arantxa Iribar - Iker Muguruza - Ana Segurola - Prexen Altuna - Oskar Angulo - Josune - Arantxa Manterola - Nekane Segurola - Sinesio Miguel - Itziar Aizpuru - Iñigo Azpiroz - Ester Ibarguren - Ainara Arnaiz - Zalao Arnaiz - Itziar Errekondo - Joxe Luis Arrastoa...



ELKARGUNEA



# Txirrikitutik



Egile ezezaguna, 1992ko ekainak 21,  
Lehen Egunkari festa Usurbilen

Egineko urtekaria

## Denok gara Egunkaria

A le honetako prestatua nuen argazkia bere horretan sartu ala Arate hau azken gertakariak salatzeke eta, Egunkaria-ko langile eta atxilotuekiko nire elkartasuna agertzeke erabiltzea erabakitzen ari naizen une berean jaso ditut Madriletik datozen azken berriak. Eta barrena irauli zait. Pello ospitalean da larunbateretik eta inkomunikaturik jarraitzen du. Ze tratu pasa arazi ote diote? Nola ote dago? Ezjakintasuna, inpotentzia, amorrua ... Eta gainontzeko atxilotuak? Eta Joan Mari?

Prestatu nuena hurrengorako utzi eta Usurbilen 1992ko ekainaren 21an ospatu zen Lehen Egunkari festako alboko argazkia jartzea erabaki dut. Bertan, lehen ilaran, ezkerretik eskuinera, ondokoak ageri dira: Iñaki Uribe (atxilotua), Martin Ugalde, Joxe Antonio Altuna eta Joan Mari Torrealdei (usurbildarra, atxilotua).

Adierazpen askatasuna urratu ezina da. Eta urratu ezina izateaz gain ezinbestean babestu beharrekoa da geurea galdu ez badugu nahi. Animo eta aurrera Egunkaria. Ez dago etenik: "Itxia, ez isildua".

Zalao Arnaiz Iburguren.



**OHARRA:** Herriko argazki zaharren bat exean baduzu eta Noaua!ko Txirrikituko atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletzeko 2. solairuan gaude (9:00etatik 14:00etara). Bestela, 943371951 telefonoan edo [fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net](mailto:fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net) e-postan aurkituko gaituzu. Garai bateko argazkien bidez gure herria hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Anima zaitez!

## N u !

**Argitaratzailea :** Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: [noaua.k.e@euskalnet.net](mailto:noaua.k.e@euskalnet.net)

Web orria: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

**Kazetarien koordinatzailea :** Imanol Ubeda

**Kazetariak:** Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea:** Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea:** Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak:** Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

**Informatika:** Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa:** Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**  
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

## Aurkibidea

ZUTABEAN, MIKEL USABIAGA \_\_\_\_\_ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN \_\_\_\_\_ 6. URR.

KONTZEJU TXIKIA \_\_\_\_\_ 10. URR.

Zeramika plakak jartzeko  
aukera berri bat eskura.



HAUR ESKOLAREN MATRIKULAZIO KANPAINA \_\_\_\_\_ 11. URR.

EGUNKARIA ITXIRIK JARRAITUKO DU \_\_\_\_\_ 12. URR.

HERRI LAN PLATAFORMAREN AURKEZPENA \_\_\_\_\_ 14. URR.

PEÑAGARIKANO ERREBANTXA GOGOZ \_\_\_\_\_ 16. URR.

KIROL PROIEKTU BERRIAZ NOAUA! TXIKIN \_\_\_\_\_ 18. URR.

EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN \_\_\_\_\_ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

## Zutabea !



MIKEL USABIAGA

## Presaka

**D**enborak urrea balio duela uste izanak, askotan, osasuna izorratzeraino garamatzen abiaduran bizi arazten gaitu. Helburu guztiak bete behar horrek, azkenean, bizitza hau pixka bat goxatzeko beharrezkoak ditugun beste osagarri batzuk ikustea galarazten digu. Erritmoa lasaitu beharra dago, bai lagunekin egoteko, bai naturak eskaintzen dizkigun urtaro desberdinen freskuraz eta edertasunaz goxatzeko edo eta isiltasuna bera deskubritzeko.

Duela gutxi kirol pixka bat egin nahian nenbilela, lagun batekin egin nuen topo eta ondorengo solasaldia eduki genuen:

- Noaua!!

- Hementxe, seietako etxeratu nahi nikek eta badakik ...

- Hi, ez al haiz presaka bizi ?

- Bai, bestela ez nauk iristen ezertara.

- Baina beti iritsi egin behar al da ba? Lasaiago biziz naturaz gehiago gozatzea ere!

- Hi, ez hadi zorakeria horiekin hasi, goazen! Korri! Ordubete bakarrik zeukat eta.

- Zergatik daramatzak aurikularrak jarrita?

- Korrika nabilen bitartean notiziak entzun nahi ditudalako.

Jakina, informazioa beharrezkoa diat egun-egunean egoteko. Oraintxe bertan enteratu nauk Xabi Alonsok ezingo duela datorren igandeko partida jokatu. Medikuek diotenez, bere ezkerreko orkatilatik operatu egingo ditek eta astebete egin beharko omen dik klinikan.

- Eta zer axola ziok Xabi Alonsoren ezbeharrak. Iganderoko futbola ikusteaz gainera, gero,astean zehar, jokalarien egoera klinikokak ere albiste iturri izan behar al dik ba? Deskonekta hadi! Entzun hezak txorien kantua, ikus paisajea eta senti dezagun arnasa.

- Tira! Mugi hadi! Oraindik dutxatu eta afaldu egin behar diat eta ez nauk Goenkale ikusteko ordurako iritsiko.

- Goenkale? Hi ere eskolumeak bezala ala? Txango bat egitera doazenean, etxetik atera eta kilometro bat egin orduko, autobuseko txoferrari bideoa jartzeko eskatzen ziotek. Ezin ditek segundo bat ere TB-ren "xutea" hartu gabe egon. Gainera, bakoitzak bere aurikularrak jarrita eramaten dizkik, albokoarekin hitz egin gabe joaten dituk, eta gehienetan, ez zekitek nondik nora dabiltzan ere.

- Baina eguna lanean pasatu eta gero zer egingo diagu ba?

- Bada, trankil egon. Besterik gabe lasai-lasai egon. Edo menditik bueltatxo bat eman.

- Eta zer ibilaldi egingo huke ba?

- Usurbilen bazeukagu hainbat ibilbide motel! Eta bat aukeratzekotan hauxe: irten elizaren ondotik eta jo Santuenea aldera. Zorrotzeko zubi ederrarekin topo egitean, ikus dezagun bere azpitik doan ibai kutsatua, guk kutsatua. Gure aiton amonek bertan egiten omen zitean igerian, to!!

Zubia pasa eta segituan eskuinetara hartuko diagu. Errotaberriren parean pasatu ondoren, Irabiko lautadan sartu eta hemengo belardi, baratze eta paraje lasaietatik gozatuz Txokoaldera iritsiko gaituk. Hemen, trenbidea gurutzatu eta honen ezker aldetik aurrera doan bidean jarraituz, lehenik, Ilunbe baserriarekin eta gero Guardanearekin egingo diagu topo. Andatzako pistan 900 bat metro ibili ondoren, eskuinetara (Oriorantz) jarraitzen duen pista hartu eta erribera aldera jaitsi gabe, gainik gain, Irigain eta Bizikatxoren artetik pasatuz, berehala, bista paregabeak ikusteko aukera izango diagu. Batez ere, Itzaoko erriberatik hasi eta Oriorantz Oriia ibaiak marrazten duen paisajea ikusgarria duk. Aurrera jarraituz, bi errekatxo gardenek topo egiten duten guneez eta liluragarria iritsiko gaituk. Barremuno baserriaren azpialdean zagoken erreka zulo honi Zubizar deitzen ziotek eta gainera, Aia-Usurbil herrien mugan zagok.

Aurrera eginez eta pinu artean goraka doan pista bat hartuz, instant batean, baserriaren atariraino eramaten dik bideak. Inguru dotorea duk Barremunokoa. Zer historia ote zeukak baserri honek? Hizketan baleki...


Barremunotik Oriorako bidea hartu eta berehala Pangorri edo Pagoederraga baserrira iritsitakoan, bertantxe dagoen langa bat pasatu eta baserriaren goaldean dagoen belardian gora egingo diagu. Goiko kaskoak Abaro dik izena. Abaro ezker aldetik zeharkatuz, bat batean, Orio eta bere inguruko bista zoragarriak ikusiko dizkiagu. Maldan behera joanez, Mota baserriaren ezkerretik pasatuz, Arraun-klubera jaitsi eta aitaren batean Orioko tren geltokira iritsiko gaituk. Trena hartu eta 10 minututan Usurbilen .

Zer? Bihar egingo al diagu?

- Zenbat denboran?

- Zer? Orain ere presaka?

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga



**Urtinea**

L r k - L r l n r k

L r s r t k - K r k

San Esteban Tlf.: 943 36 22 55



**ITZ G**

**HEIKTEN**

S. U. S. R. N. K. I. K. I. C. R.  
K. N. T. M. K. E. T. T. K.

Euska prezaile itza

TIL 33 217



## Ika-mika

## Errealaren futbol zelaia itxita. Jokalariak eta zuzendaritza atxilotuak.

Honelako zerbaite gertatu beharko du guk erreakzionatzeko. Egunkariarekin gertatutakoak ez gaitu behintzat asko asaldatu.

Otsailak 20 osteguna, arratsaldeko 20:00etan: asanblada eta ondoren manifestazioa herrian zehar, 80-100 lagun (betikoak, salbuespenak salbuespen) pankartara arrimatze beldurrez eta oihu egiteko gogo gutxirekin.

Otsailak 21 ostirala, arratsaldeko 19:30etan: mozio aurkezpena udaletxean. Sozialista Abertzaleak-eko 7 zinegotzi, EAJko zinegotzi bat eta PSE-EEko zinegotzia. 15-20 lagun (betikoak, salbuespenak gabe) pleno aretoan, ia PSE-EEko zinegotzia zaintzera etorri ziren bizkarzain eta ertzain adina (8-10). Arratsaldeko 20:00etan manifestazioa, 30-40 lagun.

Otsailak 22 larunbata, arratsaldeko 17:00etan manifestazioa Donostian: usurbildar mordoa, ezin jakin zenbat. Hala ere, manifestazio horretan izandako askok bere ardura eta betebeharrak horretara mugatuko ditu, alegia, hortik aurrera "alla kuidaus".

Ni, nire familia, nire lana, nire etxea, nire kotxea, nire dirua, nire porrak, eta ahaztu gabe, Erreal!; ondo badoaz, España ond... barkatu, Euskal Herria ondo doa.

Izenburuan jartzen duena gertatuko balitz ere, gu ez ote ginatete Athletic zale izatera pasako?

Ziuraski zeharo oker nago eta gehienak pentsatzen duzuen bezala, kontzentrazio, asanblada, mozio, manifestazio etab... e dute ezertarako balio.

Beraz, horrelako erasoan aurrean, eraginkortasun handiagoa duten ekimenak proposatuko dituzuelakoan, hementxe duzue aukera, Noauan, idatzi eta ezagutarazteko.

Larbain

## Salaketa

Usurbilgo Eusko Alkartasunak azken egunetan euskal kulturak jasaten ari den eraso salatu nahi du. Jakin eta Argia aldizkariaren, Ikastolen federazioaren eta beste erakundeen miaketak, eta nagusiki Egunkariaren itxiera, aktuazio neurri-gabeak izateaz gainera, euskara eta euskal kultura indarkeriarekin nahasteko ahalegin zikinak besterik ez dira.

Atxilotuei gure elkartasuna adierazi nahi diegu, bereziki herritar ditugun Pello Zubiria eta Joan Mari Torrealdairei eta beren senideei. Lehenbailen gure artean izango ditugulakoan gaude.

Eskerrak adierazi nahi diegu otsailaren 22an Donostian eginitako manifestazioan parte hartu zuten ehundaka herritarrei.

Usurbilgo Eusko Alkartasuna

## Zoritxarreko egunak

Berriro ere zoritxarreko egunak ezagutu ditugu joan den astean. Euskal Herriko hogeita hamabost etxetan kolpatu du errepresioak, hauen artean bi herritarrenak: Pello Zubiria eta Juan Mari Torrealdairei. Gure hizkuntza nazionalen osoki egiten den egunkari bakarra itxi egin digute. Une hauetan gure elkartasuna adierazi nahi diegu atxilotu guztiei eta bere familiei eta, bide batez, herritarrei erreakzionatzeko deia egiten diegu, aspalditik iragartzen ari garena egiaztatu baita berriro ere: eraso Euskal Herriaren kontra doa.

Usurbilgo Ezker Abertzalea

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

**Hurrengo alea:** martxoak 14. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** martxoak 7.

**Postaz:** Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

**e-posta bidez:** noaua.k.e@euskalnet.net



Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**GLG**

garraioak

ZABOR BILKETA

TELF: 943 37 01 46

**ERRAZ IN**

Igeltzer tza

rra

K I N u s . I  
T I F 3 3 / 2 7 1 3 S I 2 5  
S n t u ■ M 2 2 S S

**ITURGINTZA**


.....

**J SE**

**NGU EN**

.....

TELF 3 3 7 2



**txirriStra**

**TABERNA**

- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Tel: 943 36 04 66

**JU NTX**

ur n

k l n u s l Usur l

SI

IÑAKI  
LABAKA

Txokoalde

## Erroizpe elkartearen asanbalda

Iazko bilkuran erabaki zenez, otsaileko azken igandean burutuko da aurrerantzean urtero Erroizpe Elkartearen Biltzar Orokorra. Horrenbestez, pasa den igandean, otsailaren 23an, oroitzapen gaiztokoa euskaldunontzako, hamaiketan aurreneko deialdia eta ordu erdi beranduago bigarrena iragarrita zeuden. Bertara hurbildu zenak, batzarra hasi baino lehenago salda katilu bat eta txorizo eta haragi egosia jateko aukera eduki zuen. Beste arrazoi bat bazkide gehiago etor zedin. Baina, gutxi gora behera, betikoak hurbildu ziren, berrogei bat inguru.

Batzarrari dagokionez, lehendabizi zuzendaritza batzordeko kideak aktaren irakurketa egin zuten. Iaz erabaki zen moduan, falta zen bazkideari 12 euroko isuna ezarri zitzaion.

Ondoren ekonomia kontuak zehaztu zituzten. Inbentarioak bazkide bakoitzari orri batean azaldu zituzten. Diru aldetik gauzak nahiko ondo doaz. Hala ere kuota pixka bat igotzea erabaki zen. Orain 95 eurotan utzi dute. Jabearekin lehenengo egoeran segitzen dute, errenta ordaindu lokalagatik eta kitto. Ahaleginak egin dituzte berarekin harremanetan jartzten, etxearekin zer egiteko asmoak dituen jakiteko,

baino, alper-alperrik, ez baitu telefonoa hartzen. Beste akordiorik lortzen ez bada honela segituko da 2005 urte arte. Handik aurrera ikusi egin behar. Ezin uka etorkizuna oso beltza denik. Gauzak ez badira aldatzen kale gorrian gara.

Gero izan diren alta eta bajen berri eman zuten eta nahi izanez gero bazkide berriak egiteko aukera zabalik dagoela aipatu zen. Gainera ikusirik 2005 arte bakarrik dugula ziurtatuta lokala, bazkide berriak zenbait onuraz gozatzeko aukera izango du; adibidez, sarrearik ordaindu beharrik ez, egoera luzerako ziurtatu arte. Pasa den urtean baldintza hauekin lau gazte sartu dira elkartearen.

Azkenik zuzendaritza batzordeko hiru kidek (Jose M<sup>a</sup> Iñigo, Juan Miel Elizalde eta Jose M<sup>a</sup> Ikutza, azken hau lehendakari bezala) urte batzuk pasa eta gero, uzteko asmoa azaldu zuten eta beraiek ordezkatzeko bolondresak eskatu ondoren hiru bazkide aurkeztu ziren (Antonio Arruti, Jose Miel Kastresana eta Patxi Astiazaran). Orain hauek eta lehendik batzordean jarraitzen duten hiru kideek (Aitor Alkorta, Jose M<sup>a</sup> Iribar eta Iñaki Etxeberria) beraien artean izendatu beharko dute nor izango den elkartearen lehendakaria.

ENEKO  
HARREGUY

Kaleberri

## Ez ditut ikusten

Benetako edo alegiazko arrisku batek eragindako ezinegonaren sentimendua. Horixe sortu izan dit, egunen batean hitza eman eta ez bete izanak. Horrexegatik bakarrik, berriz gehiago gerta ez dakidan saiatzen naiz.

Sentimendu bera bihotzeratzen zait, historian atzera egin eta euskarak zein lurralde hitz egiten zituen – eta historian, Aro Garaikidera hurbildu ahala, zein lurralde hitz egiten dituen – ikusten dudanean.

Zeresanik ez, zernolako samina, munduaren birika zaizkigunetik – apurka-apurka – hostoak lapurtzen badizkiete, biluzteraino. Edota izaki uperkariak tartekatzen zituzten egun eta gauak debekatu eta, bat-batean, ilunpe irenstezin eta jasanezinera derrigortu dituztenean. Hara zer nolako hitz hasierak Prestige Petrolioak! Ez diete bizitzen uzten. Euroak egosi ala frijitu al daitezke? Ez digute bizitzen uzten!

Zerez elikatu ezean, nor elikatu? Ez da guz-

tiontzako iristen. Soberan gaude batzuk. Akabo, orduan. Arma-tiro-Bush!! Gerra, suntsipen handiko armak ei ditu Irakek (armek nitxoak betetzeko baino behar ez zuketenean; eta ez alderantziz). Eta arma haiez desegin ezean, arma hauez baliatuko dira, besteak. Eta halako suntsipenekoak badira... suntsituko zaituzte, AEB? Baina, badaezpada, esperantzak dituzte; seguruago esan, ziur zaudete garaituko duzuen; nola, bestela?

Nork ditu, beraz, armak? Ez zaizue komeni ikuskatzaileak zer dioten entzutea; ez eta ados ez daudenek diotena. Aitzakia. Boterea. Botere gehiago eta petrolio-jabe. Eta zerri aurpegikoaren jarraitzaile argambois biboteduna. Nonbait, zuei, ez sortzen niri hitza ez betetzearan halako sentimendurik! Ez dakizue nola uzkuertzen zaidan barrena, eta hau da benetako arrisku batek eragiten didan ezinegonaren sentimendua: beldurra.

## Gaur ume, bihar etorkizun

**K**aixo irakurle, hemen gatoz Kalezartik berri-emaile lanetan. Oraingoan, guraso batzuk ederki asko ezagutzen duzuen leku batean egon naiz: haur eskolan. Egia esan, ezagutzen duzutenok bat egingo duzue nirekin: haur baten-tzat leku aproposa da.

Udalak gurasoen artean galdeketa egin zuen eta beharra zegoela ikusita, 2001eko irailean, haur hezkuntzako lehen zikloa egiteko aukera jarri zuen. Bertan, lau hilabete betetzen dituztenetik, hiru urte egin bitartean egoten dira. Goizeko zazpi eta erdietatik arratsaldeko zazpiak arte egoten da irekita urte osoan, abuztuan izan ezik. A ze ordutegi malgua!

Orain, 44 haur dituzte eta zazpi hezitzaile daude. Horrez gain, sukaldari bat ere badute jaki goxoak prestatzeko. Orain sar gaitezen eskola barrura.

Adinaren arabera sailkatzen dituzte taldeak: 3 taldetan banatuta daude. Jaio berriek seaska propioa dituzte, apaltxoan pardelak, txupetea eta

beharrezko gauza guztiak. Beste gela batean handixeagoak daude eta bertan koltxonetak, jostailuak, margoak eta abar dituzte, gauza guztiak haurrak iristen direnerako apaletan eskuragarri, txukun-txukun jarriak (hori ez da normalean umeak dauden etxeetan gertatzen). Psikomotrizitatea lantzeko gela bat ere badago, baita komun eta arraska bana txikientzat egokituak, etxean baino hobeto!

Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, besteak beste; Santa Ageda, Iñauteriak eta Gabonak. Tarteka irteerak egiten dituzte, noiz edo noiz bi egunetakoak ere.

Bukatzeko, haurrentzat auzoan parketxo bat eskatzeaz gainera, zera adierazi didate: “ikusi duzuenek, aukera zabala eskaintzen du haur eskolak, gizarteak hala eskatzen baitu, baina, gogoan izan adin horretan haurrak gurasoak gertu izan behar dituztela, garrantzi handikoak baitira lehenengo hilabeteak haur batentzat”.

Kalezar



**JOSEBA  
PELLEJERO**

## Neguairen bihotzean

**A**zken bolada honetan haize zakar eta egu-  
araldi hotzarekin gabiltza. Errege Eguna pasata hasi ginen tenperatura hotz hauekin eta oraindik ere, neguak bihurri xamar jarraitzen du. Haizeak indar handia duenez, zakarrontziak eta bazter guztiak hankaz gora jartzen ditu. Berokiak ere jantzi behar izan ditugu, elurra ere ikusi dugu, nahiz eta gure kaleak ez txuritu azkenean, haur eta gazteen gozamenerako. Hala ere, elurraz gozatzeko unerik ere izan dute askok, inguruko mendiak zuri-zuri izan baititugu.

Bestalde, Iñauteriak ere ate joka ditugu. Ikastolako haurrak jada bukatuak izango dituzte egun hauetarako jantziak eta hortxe dabilta guztiak gogoz festa antolatzen: “Ama hau behar dut, edo bestea behar dut”. Beraz, guztiak ondo pasatzera animatzen ditut, umore onenarekin.

Bukatzeko, eta gaia aldatuz, Atxagaldeko iturri inguruan dauden lau zuhaitz lehortuta daudela dirudi. Horregatik, arduradunari eskatuko nioke bertatik pasatzeko eta begiradaxo bat botatzeko,

ezean hurrengo udaran ez baitugu izango berak emandako itzalik. Eta, lerro hauek aprobeztatuz, bigarren eskaera: zakarbiltzaileak inguru horretatik noizean behin pasatzea eskatuko nieke, alkan-tarilak itxita baitaude pilatzen den zakarraren ondorioz eta itxi egiten du uraren bidea.

Besterik gabe, beste bat arte, agur denoi!

Atxegalde



**MARIA  
JESUS  
URBIETA**





PAKO  
AGUDO

Santuenea

## Kray taldearen rock kontzertua auzoan

Pasa den otsailaren 14an, aspaldiko partez, gure auzoan kontzertu batekin gozatzeko aukera izan genuen. Ia ahaztu ditugu jaietan egiten ziren rock kontzertuak, baina gure auzoko rockeroak ez dira hiltzen. San Esteban tabernan izandako taldea Kray izan zen.

Bertan, Lean aurkitu genuen, aspaldiko partez, gure aurrean kitarra eskutan zuela. Leanek, gehienak gogoratuko duzuen bezala, ADN eta Estuches taldeetan egona da eta orain Lasarteruntz abiatu da banda berri hau osatzeko. Kray taldearen ibilbidea kitarra jole eta kantari den Tommy eta bere bateria den Ferrekin hasi zen. Geroago, bildu ziren gure Lean eta baxujolea den Joxean ere. Maketa bat grabatu ondoren, aurten bere lehen diskoa grabatu dute The Journey izenekoa. Diskoaren izenak adierazten digun bezala, bere konposizioen hitzak ingelesez idatziak dira. Tommy Londresen egon zen ikasten eta hizkuntza hori ondo menperatzen du eta bera da taldeko hitzak sortzen dituen. Hainbat elkarrizketa egin dizkiete zenbait irrati txikitari eta disko berria aurkezteko kontzertu mordo eskaini dituzte azken bolada honetan. Kanpotik ere eskaintzak iritsi zaizkie, Madrid, Zaragoza...

Donostiako pop rock lehiaketan ere parte hartu zuten eta finaleira iritsi ziren. Bere kontzertuak bi eratakoak dira.

Batzutan, soinu rockero eta kitarreroak eskaintzen dizkigute –eta proposamen honetan doinu ingelesena ageri da nabarmen–. Beste batzutan, Santuenean bezala “unplugged” edo era akustikoan. Horrela izan zen auzoan eskainitakoa. Lokal txikia, jendea gustura eta beraien melodiekin gozatzeko aukera distorsiorik gabe. Bertan zenbait bertsio entzuteko aukera izan genuen, Nirvana, Metallica... bertsio onak eta landuak. Aitzaki oso ona izan zen iraganeko Santueneko rock kontzertuak gogorarazteko.

Besterik gabe, Kray-ri zorte handia opatuz eta horrelako beste ikuskizunekin auzoan gozatzeko itxaropenarekin agurtzen naiz.



## Erribera



ALAZNE  
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Gaurko honetan, eliza, parkea eta bere ginguruak alde batera utzi eta beste gai batetaz hitz egitera natorkizue: erribera.

Askotan ahaztu egiten dugun arren, gure auzoak badu ibai-ertzea. Santuenea eta Txokoalde artean, oso ibilaldi polita dago. Asfaltatu zutenetik, oso ederki dago paseotxo bat emateko. Gainera, kotxerik ere ez da pasatzen bertatik eta lasaitasun osoz ibili zaitezke. Baina, orain, neguan gaudenez, nahiko azkar iluntzen du eta buelta goiz egin beharra dago.

Ni ere, aspaldiko partez, lehengo batean erriberara oinez ibiltzera joan nintzen. Bidea oso polita, bai, baina, txukuntasuna! Uholdeak izan direla eta, aldameneko zuhaitzak plastikoz eta zikinkeriz beteta daude. Badakigu honelakoetan zer gertatzen den, baina tamalgarrira iruditzen zait

halako ikuskizuna.

Hala eta guztiz ere, okerragoa iruditzen zait ibaiak ekarri ez dituen zikinkeria bide bazterrean ikustea: latak, botelak, paperak... Mesedez, ea ikasten dugun kontzientziatuagoak izaten, hor botatzen den zikinkeria bertan gelditzen baita denbora luzerako.





## 2003ko Errege Eguna

Aste batzuk pasa badira ere, Eguberrietako ospakizunetan lagundu zutenen lana aipatu nahi nuke. Argazkietan azaltzen diren haurrak elizkizunetan parte hartu zuten lagunak dituzue. Dotore-dotore jantzi eta aurkitzen dira eliz barrutian aldaire aurrean jaiotza eta hiru erregeen artean. Pozik igaro zuten eguna, giro ederrean. Oparitxoak gustura jaso zituzten. Zorionik beroenak denei elizkizun alai eta dotorea prestatzen laguntzeagatik. Jarraitu horrela gazteak, zuen beharra izango baitugu.



Aginaga



MARIA  
ANGELES  
ARRUTI



## Etxebizitza publikoak

Zubietan eraikiko diren zortzi etxebizitza publikoen zozketak hautsak harrotu ditu. Aspaldi gaude zubietarrok etxebizitza bakan horien zain, eta urtarrilaren bukaeran abisu bat banatu zitzazaien herritarrei izena emateko epea bukatzera zihoala abisatzeko. Gogorra da gero, hainbeste itxoin ondoren, korrika eta presaka ibili beharra!

Gertatutakoaren ardura duelako, Donostiako udalaren portaera salatu nahi dut hemen. Eginahalak eta bi egin ditu Zubietako Herri-Batzarrak Donostia parteko lau etxebizitzak zubietarren artean bana zitezten lortzeko. Azken muturreraino eraman ditugu negoziaketak, baina alferrik. Azkenean, etsita, zubietarrei izena emateko epea luzatzeko eskatu diegu Donostiako arduradunei, baina horretan ere ez digute kasurik egin. Ondorioz, estu eta larri ibili gara herritarrei informazioa banatzeko. Badakigu informazioa ez dela behar den bezala iritsi herritar guztiengana, baina espero dugu inor ez zela geldituko izena eman nahi eta eman gabe. Halakorik balego, eskertuko genioke guri esatea.



Zubiet



XABIER  
ARREGI

Berriki jakin dugu 2458 herritar onartu dituztela Zubietako zerrendan. Alegia, Zubietako 4 etxebizitza horiek 2458 lagunaren artean zozketatuko dituztela. Zozketa uda aurretik egingo da seguruenik, oraindik zehaztu gabeko egunean.

Usurbil parteko lau etxebizitzaren zozketan zubietarrok izango dugu lehentasuna. Hori da bileretan hitz egindakoa. Hortik aurrerako xehetasunak finkatu gabe daude oraindik.

## Zeramikazko plaka jarri nahi al duzu baserrian?

**U**dalak etxe zahar eta baserrien sarreran zeramikazko plakak jartzeko deialdi berria egin du. Helburua etxe-izen zaharrak ezagutaraztea eta hizkuntza aldetik normalizatzea da. Plaken kostua udalak bere gain hartuko du.

Udalak 1990ean herriko toponimia lana egin zuen. Toponimo horiek normalizatu eta hedatzeko, Udalak, 2000. urtean Buztinzulo zeramika taldearekin hitzarmena sinatu zuen zeramikazko plaka hauek egiteko.

Bi urte hauetan Buztinzulok dagoeneko 35 zeramikazko plaka egin ditu. Plaka hauek arrakasta handia izan dute herrian. Baina, oraindik ere hainbat etxe eta baserrian ez da zeramikazko plakarik jarri. Udalak, deialdi berri honen bidez baserri horietara guztietara iritsi nahi du.



ZERAMIKA ESKAERA EGITEKO EPEA MARTXOAREN 14AN AMAITUKO DA.

Zeramikazko plakak jartzeko udalak eskainiko duen azken aukera izango da hau. Beraz, etxean zeramikazko plaka jarri nahi duenak lehenbailehen Usurbilgo Udaleko Kultura eta Euskara Zerbitzura joan eta bertan egin behar du eskaera. Eskaera egitera joatean, etxearen eskriturak ere eraman behar dira. Eskaera egiteko epea martxoaren 14an amaituko da.

## Erretzeari uzteko ikastaroa antolatu nahi da

**M**inbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkartek (MAGE) "Erretzeari Uzteko Programa Terapeutikoa" antolatu du. Usurbilen martxan jarri nahi da ikastaro hau. Taldea osatuko balitz, aurkezpen hitzaldia eta ondorengo saioak egun hauetan izango lirarteke: aurkezpena, martxoaren 18an. Saioak, martxoak 25 eta apirilak 1, 8, 15, 22 eta 29. Bai aurkezpena, bai saioak arratsaldean egingo dira. beti ere, par-

taideen lehen-tasunak aztertu ondoren. E u s k o

Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin antolatu da ikastaro hau.



Ikastaro honetan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du aurretik. Horretarako, Gizarte Zerbitzuetara deitu beharko da 943 377 110 telefono zenbakira, martxoaren 10a baino lehen.

## SAHARA BIDEAN DIRA BILDUTAKO ELIKAGAIAK

**T**indoufeko errefuxiatuen kanpamentu bidean dira Usurbilen bildu diren 500 kg-tik gora elikagai. Errefuxiatuek bizi duten egoera larria arintzeko jarri zen martxan "SOS Sahara" izeneko kanpaina. Udal ordezkariak kanpaina honetan herritarrek izan duten parte hartzea eskertu nahi dute.

## LANBIDE.NET, LANA TOPATZEKO ZERBITZU BERRIA

**E**gailanek hitzaldi baten bidez aurkeztu zuten lanbide.net, lan merkatuko informazioa jasotzeko zerbitzu publiko berria. Enplegu bulegoak langabezian direnentzat antolatu zuen aurkezpen-hitzaldi hau Txaramuntoko lokal berrian. Han esandakoaren arabera, lanbide.net web gunea lan bila dabilentzat tresna egokia izan daiteke.



## FOTOTEKAKO ARGAZKIAK AITZAGAN

**P**asa den otsailaren 7tik 21era Aitzaga tabernak antolatuta udal fototekako argazkiez osatutako erakusketa ikusteko aukera izan dugu Aitzaga tabernan. Erakusketa Noaua! Kultur Elkarte eta Usurbilgo Udala egiten ari den elkarlanaren isla da. 50. hamarkadatik 80. hamarkada bitarteko herriko 20 argazki egon dira erakusgai.



# Matrikulazio epea ireki du Haur Eskolak

**D**uela bi urte, (2001eko irailean hain zuzen) zabaldu zen Kalezar auzoan Haur Eskola. Harrez gero, haur hezkuntzako lehen zikloa ere eskura dute Usurbil eta inguruko herrietako gurasoek. Lasarte-Orian, esate baterako, ez da lehen zikloa eskaintzen duen eskolarik. Horregatik, gero eta gehiago dira inguruko herrietatik hurbiltzen direnak. Dena den, usurbildarrak dira nagusi.

Haur Eskolak era xumean eman zituen lehen urratsak, 12 haurrekin. Ikasturte amaieran, 24 haur ziren eskolan. Ikasturte honetan, aldiz, 43 haur dira Kalezarrera egunero hurbiltzen direnak. Pentsa zer nolako harreara izan duen zerbitzu honek, txikiengan (0-1 urte) itxaron-zerrenda osatu behar izan dela. Hau da, haur eskolan sartzeko zain dira hainbat haur. Ez dugu ahaztu behar plaza mugatuak dituela haur eskolak: 0-1 gelan, gehienez 18 haurrentzat dago lekua. 1-2 gelan, 26entzat. Eta 2-3 urtekoen artean, 17. Dena den, Udarregi Ikastolak, 2-3 urteko haurrak ere hartzen ditu.

Baina zertan datza haur eskolaren arrakasta? Izan ere, jaiotze-tasa berdintsu mantendu baita azken urteotan. Gakoa hezitzaileengan dago. Aurretik hutsune handia zegoen, hori ere esan beharrekoa da. Baina hasieran haur eskolaren alde apostua egin zuten gurasoak pozik daude haurrei ematen zaien heziketarekin. Eta honek beste guraso batzuen interesa piztu du. Matrikulazio kopuruaren goranzko joera da arrazonamendu honen lekuko. Gainera, ordutegia zabala da, goizeko 7:30etatik iluntzeko 19:30etaraino. Eta hau ere aban-



HAUR ESKOLAREN MATRIKULAZIO KANPAINA MARXOAREN 4AN HASIKO DA.

taila da lanean diren gurasoentzat.

Haur eskolaren eskaintza zabala dela esan dezakegu. Zerbitzuen artean, psikomotrizitate gela eta txokoka bereiztutako gela. Hala nola, Usurbilgo haur eskola konstruktibismoaren korronteari loturik dagoenez, haurren behar eta interesguneetan oinarritzen da proiektu hezitzailea.

Haur eskolatik kanpo egiten diren jardueri ere garrantzia handia ematen zaie. Ingurunea ezagutarazten ahalegin berezia egiten da.

Baina haurra ingurunean integraztea garrantzistua bada, haurra bere ingurukoekin sozializatzea ere bada hezitzaileen ardura nagusietako bat. Haur eskolaren egoitza arrotz egin ez dadin, egokitzapen prozesu batean partehartzen dute lehen ikasturtean gurasoek, haurrek eta hezitzaileek. Gurasoen partehartzea beraz, premiazkoa da. Gainera, haurrari egunero jarraipena egiten zaio hauen ongizatea ziurtatzea baita haur esko-

laren ardatz nagusia.

Baina haurrak inguru batean, herri batean hezten eta hazten dira. Horregatik bertako ohiturei eta kultur espresioei arreta berezia eskaintzen zaie.

## HAUR ESKOLA 03/04 IKASTURTEA

**Epea:** martxoaren 4tik 14ra.

**Ordutegia:**

- Goizez, 9:00-10:00.
- Arratsez, 18:00-19:00.

**Eraman beharrekoak:**

- Errola agiria.
- Kontu korrontearen zenbakia.
- 2 argazki.
- Pediatraren fitxa.

**Nori zuzendua:** Haur hezkuntzako lehen zikloa. 0/3 urte bitartekoei.

## Herritar askoren babesas jaso zuen Herri Lan Elkarguneak

**M**aiatzaren 25ean egingo dira udal hauteskundeak Hego Euskal Herrian. Beste herrietan bezalaxe, Usurbilen ere hasi da hauteskunde giroa berotzen. Herri Lan Elkargunea izena hartu duen plataforma izan da lehen urratsa eman duena. Otsailaren 16an aurkeztu zen herritar askoren babesean.

Sozialista Abertzaleak alderdiaren ilegalizazio prozesuaren aurrean, ezker abertzaleko hainbat lagun beselako dinamikak abiarazi dituzte. Herri mailako plataformen bitartez, gizarteko sektore honen ordezkari politikoak bermatu nahi da. Usurbilen, otsailaren 16an aurkeztu zen Herri Lan Elkargunea. Hamaitakoko oparo batekin hotzari aurre egin ostean hasi zen ekitaldi politikoa. Herritar asko izan ziren plataformaren aurkezpen ekitaldira hurbildu zirenak. Usurbildar askoren kezkatik abiatu den plataforma dela jakinarazi zen aurkezpen ekitaldian: “kezkatuta gaude Euskal Herrian gertatzen ari diren gehiegikerien aurre-

an. Eta ezin dugu ezer egin gabe lasai gelditu. Gure artean elkartzeko, hitz egiteko... eta, azken finean, zerbait egiteko beharra sentitzen dugu.

Hiru oinarri izango ditu aurkeztu berri den Herri Lan Elkarguneak:

1. Autodeterminazio eskubidearen defentsa Euskal Herri osoarentzat.
2. Oinarrizko eskubide demokrati-koen urraketa salaketa.
3. Ezkerreko ikuspegia.

### USURBILDARREN BILGUNE

Bide batez, usurbildar guztien bilgune eta eztabaida-gune izateko jaio da Herri Lan: “gure artean ikuspuntu eta iritzi ezberdinak izango diren arren, helburua, batzen gaituenaren inguruan lan egitea da”, adierazi zuen plataforma honetako kide batek.

Bultzatzaileek aurrerantzean egingo diren ekitaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi diete herritar guztiei.



**LAGUN ASKO “AI AMA” ANTZEZLANEAN**

**L**agun asko bildu zituen Hika taldearen “Ai Ama” antzezlanak. Hori bai, emakumezkoak nagusi izan ziren harmailetan, antzezlan honetan amatasuna hizpide nagusi delako akaso. Ez zen oholtzarik jarri eta horregatik leku batzuetatik ez zen behar bezala ikusten. Dena den, antzerki taldearen nahia hori izan zen eta horregatik ez zen eskenatokitik ipini.

### AURRERA DOA HIRI HONDAKINEN PLANA

**S**an Markoseko Mankomunitateak hiri-hondakinak kudeatzeko plan integrala onartu baino lehen, herritarren hitza jasotzeko prozesua abiarazi zuen. Urtarrilean pleno aretoan egin zen planaren jendaurreko aurkezpena. Mankomunitateko beste 9 herrietan ere gauza bera egin zen.

Eta bileretara bertaratu zen %83,33ak plana oso interesgarritzat jotzen zuen. Txalotzekoa da San Markosen jarrera, plana onartu baino lehen, herriz herri aurkeztu duen Gipuzkoako Mankomunitate bakarra izan delako.



### ODOL ATERATZEA

Odol-emaelek zita berria dute martxoaren 3an, astelehena, 19:00etatik 21:00etara. Beti bezala, anbulategian.



# Iñauteriak, munduko kulturen erakusle

**M**unduko kulturak. Horixe da aurtengo Iñauterien gaia. Hitzordua, martxoaren 1ean. Herriko hainbat koadrila prestaketa lanetan aritu dira azken asteetan, eta gaia aukeratzeko orduan lehia egon bazen ere, azkenean, “munduko kulturak” gai-proposamena nagusitu zen.

Egun hauetan herriko tabernetan iñauterietarako gaia proposatzeko aukera izan dugu. Proposamen ugari jaso dira, hona hemen batzuk: San Fermiñak, marrazki bizidunak, belduzko gaua, kultura ezberdinak, toperak, 50. hamarkadako urteak, txapapotea, umore beltza, Usurbilgo zoologikoa, telebistako iragarkiak, ilegalizazioa eta ohianeko animalien festa.

Otsailaren 19an Noauaren egoitzan

egin zen bilerara gazte ugari gerturatu zen. “Marrazki bizidunak” eta “munduko kulturak” gaien artean egon zen lehia, baina, azkenean kulturak irabazi zuen. Bertan egun osoko egitaraua prestatu zen. Antolatzaileen hitzetan, “egun polita ateratzeko, beharrezkoa izango da herritarren parte hartzea. Azken bi urtetan beherakada nabarmena izan dute herriari iñauteriek. Geroz eta jende gutxiago moztortzen da. Horregatik, dei egiten diegu koadrila edo talde ezberdinei egun horretan antolatu dugun desfilea parte hartzera, sariak mundialak izatez gainera, herriari giroa egoteko”.

Eguneko lehen protagonistak haurrak izango dira. Pilotalekuan, goizeko 10:30etatik aurrera, tailerrak eta jokuak izango baitira beraiantzat. Arratsaldeko 19:00tan emango zaio hasiera desfileari eta koadrila arteko lehiaketari.

Desfilean bertan lehiaketa izango da, eta sari bikoitza egongo da. Tabernaz taberna ibiliko da desfilea, eta epaimahaikide lanetan tabernariak eta herritarrak arituko dira. Alde bateatik, taberna bakoitzean tabernariak hobekien moztortutako talde edo koadrilari puntuazio bat emango dio. Era berean, tabernan bertan aurkitzen diren herritarrek ere beren botoa emango dute.

Gaueko 21:00tan pilotalekuan boto zenbaketa egingo da eta bi sari banatuko dira: tabernariak saritutako taldeari 120 euro emango zaizkio eta herritarrek saritutakoari, beste horrenbeste. Gauerditik aurrera, txarangak emango dio jarraipena festari. Beraz, badakizue, animatu eta parte hartu desfilean, sariak zain baitauzkazue!

**LEHIAKETA BIKOITZA**

## Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

# Egin zaituzte harpidedun

(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu  
deitu

943 30 35 55

943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:

**Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN**

**Euskarak behar zaitu**

**Egunero**

## Joxemiel Peñagarikano: “Errebantxa jolasteko gogoz nago”

**J**oxemiel Peñagarikano minduta dago. III. Binakako Urrezko Aizkora Gurea Kaiku Saria eskura izan zuten berak eta bere bikoteak, Arrospidek. Baina azken txanpan, azken segunduetan alde egin zuen sariak. Larretxeak eta Mindegiak behetik gora egin eta lehen aldiz txapelketa eskuratu zuten. Errebantxa, ordea, bidean da.

Martxoaren erdialdean jokatu da eta Joxemiel Peñagarikanok, behintzat, gogoz ekin nahi dio. Binakako Urrezko Aizkora egindakoa ahaztu nahi du lehenbainolehen.

Joxemiel oraindik minduta dago. Galtzeak uzten duen zaporea garratza bada, are garratzagoa suertatzen da azken unean gertatzen bada. Eta horixe bera gertatu zen Azpeitian jokatu finalean. “Aurretik joan ginen froga osoan, azken momenturarte. 35 segunduko abantaila ere atera genien. Baina azkenean ezinean ibili nintzen”, azaldu digu goibel Joxemielek.

Hotz handia egiten zuen eta hori besoan nabaritu zuen bereziki. Joxemiel Peñagarikanok esan digunez, hotzarengatik hain zuzen, “azken bost minutuetan aizkorari eutsi ezinik ibili nintzen”.

Bera eta Arrospide bikotea txanda librean oso ondo ibili ziren, baina banakakoan

ordea ez hain ondo. Aizkorak ere zerikusia izan zuela esan digu Joxemielek: “aizkora txikiarekin ondo ibili ginen. Baina handiarekin ohitura galdu dugu eta hori ere nabaritu genuen”.

Merezitako atsedena hartzen ari da egunotan. Dena den, errebantxari begira dugu dagoeneko. Martxoaren erdialdean jokatu da eta ikusmin handia sortu du. Banakako Urrezko Aizkora ere hortxe dago. Hirugarren mailako aizkolariak jada hasi dira lehian. Peñagarikano lehen mailako aizkolaria denez, maitatza aldean murgilduko da lehian. Ea zorte hobea duen!



GARAIPENETIK GERTU IZAN ZEN  
JOXEMIEL PEÑAGARIKANO

## Astillero nagusitu zen Oriako IX. Jeitsieran

**H**asi da arraun denboraldia. Lehen froga Aginagatik abiatu zen, Oriako IX. Jeitsiera. Kantabriako Astillero izan zen nagusi, 6 kilometroko luzera 20'23''denboran osatuz. Bigarren amaitu zuen Orio A taldeak eta hirugarren, Urdaibai.



ASTILLEROK ONDO HASI DU DENBORALDIA.

## Hurrengo saioak !

### FUTBOLA

#### Martxoak 9

Erregionala 2. maila: Vasconia B- Usurbil FT

Kadeteen 2. maila igoera: Vaconia C- Usurbil FT



USURBIL F. T.

#### Martxoak 16

Kadeteen 2. maila igoera: Usurbil FT- Gure Txokoa

### ARETO-FUTBOLA

#### Martxoak 8

Infantil neskak: La Salle A - Udarregi.

Infantil mutilak: Udarregi - Altxa.

#### Martxoak 15

Infantil neskak: Udarregi - Axular Lizeoa.

Infantil mutilak: Urumea - Udarregi

### ESKUBALOIA

#### Martxoak 2

Seniorrak: Hegialde Auto - Usurbil KE.

#### Martxoak 9

Seniorrak: Usurbil KE - Arrasate. 11:00etan kiroldegian.

# Zuk ere har ezazu parte Lehen Errezeta Lehiaketan

**B**ai, hala da. Errezeta lehiaketa antolatzea otu zaigu. Badakigu asko direla sukaldari sena dutenak. Zuen gustuko postreak, hamaiketakoak, platerak... ezagutu nahi ditugu. Baldintza bakarra jarri dugu: bertako nekazal produkturen bat erabiltzea. Errezeta aurkezteagatik bakarrik sari bat jasoko duzu. Eta lehiaketa irabazleak, berriz, saski eder bat.

Beraz, badakizu. Papera eta harkatza hartu eta ekin lanari. Laster jakinaraziko dugun epaimahai batek izendatuko du sari nagusiaren irabazlea. San Ixidro egunean plazaratuko dugu izena. Animo, erraza da eta!

## LEHEN ERREZETA LEHIAKETA

Usurbildar guztiei irekita dago lehiaketa. Errezeta bakarra aurkez daiteke. Argi idatzi osagaien zerrenda, errezetaren prozedura, izen-abizenak eta telefonoa.

**Epea:** Otsailak 14-maiatzak 4. Noaua!ko bulegora ekarri zure errezeta.

**Osagaiak aukeran:** piperrak, ezti, sagardoa, esnea, barazkiak, okela, fruituak... bertako baserrietako ekoizpena.

**Sariak:** errezeta aurkezteagatik, ezti zein piper pota bana. Irabazleak saski eder bat jasoko du (100 euro ingurukoa)

**Oharra:** Noaua! aldizkariak errezetak argitaratzeko eskubidea izango du.

**Antolatzailea:** Noaua! Kultur Elkarte, udal nekazaritza batzordearen laguntzarekin.



SUKALDERAKO DUZUN  
AHALMENA ERAKUSTEKO UNEA  
IRITSI DA. ANIMO!

# Martxoaren 8an Noaua! Kultur Elkartearen Batzar Orokorra

**U**rtero bezala, aurten ere garrantzitsua da gure bidean geldialdi bat egin eta etxeko kontuak astintzea. Horretarako, gune ezinhobea dugu bazkide guztiok Batzar Orokorra. Bertan pasa berri den 2002 urteak utzi diguna aztertu eta 2003rako zuzendaritza batzordeak aurreikusituen egitasmoak aztertuko dira.

Honetan guztian gure elkarteko bazkide zaren horrek baduzu zeresanik. Izan ere, duela zazpi urte elkarrekin hasi baikeen bidea eta aurrera begira ere, bidelagun izan nahi baitzaitugu.

Beraz, badakizue noiz eta non garen elkartzekoak. Azaldu Martxoaren 8an Batzar Orokorrera, gure proiektua guzion baita, 525 bazkideona. Ordurarte, ondo izan!

## 2003KO BATZAR OROKORRA

EGUNA: Martxoak 8, larunbata


ORDUA: Goizeko 10:30etan

LEKUA: Udaletxeko pleno aretoa

### GAI ZERRENDA

- 1.- 2002ko memoria eta balantzea
- 2.- 2003ko egitasmoak: lantalde bakoitzaren proposamena eta onarpena
- 3.- Diru kontuak: 2002ko balantzea eta 2003ko aurrekontuaren proposamena eta onarpena
- 4.- Zuzendaritza Batzordearen proposamena eta onarpena
- 5.- Galdera / erantzunak
- 6.- Hamaiketako





## Arraun pista ezbaian

Orio eta Usurbil arteko kirol instalazioen proiektua dela eta, deba-

### PROIEKTUAREN ALDE

Orio eta Usurbil artean egin nahi duten proiektua dela eta debate bat egin genuen gure iritzia lantzeko eta aldeko hainbat arrazoi ikusi ditugu. Gure ustetan, proiektu honek hainbat ondorio onuragarri ekarriko lituzke aurrera eramango balitz.

Hasteko, proiektu honek inguruan hainbat aldaketa ekarriko ditu, batez ere, langabezia dauden lagunentzat. Proiektu honek, gure ustez, zoragarri eta ikusgarria, lanpostu ugari sortuko ditu, inguruko jendearen artean. Gainera denek irabaziko dugu, ez bakarrik lan bila daudenek, guztiok baizik. Guztiotzako izango dira zerbitzuak, ez bakarrik bertakoentzat. Zerbitzu hauen ondorioz, jende gehiago hurbilduko da ingurune hauetara eta turismoak izugarri egingo du gora, proiektu honek ematen dizkigun eskaintzen ondorioz. Hau guztia dela eta, herriari izena emango dio eta inguru hau guztia izugarri ezaguna izango da, ez bakarrik Euskal Herrian, baita gure mugetatik kanpo ere.

Bestetik, inguruneari dagokionez esan behar dugu, orain ez bezala, honelako instalazioek duten mantentzearen ondorioz, zelaia eta ibaia garbi mantenduko lituzketela, proiektu egoki eta polit baten ingurua ez bailukete zikina mantenduko, noski, kanpoko itxura zaindu beharko baitute. Hau da, ibaia eta inguruko zelaia garbi mantenduko lituzkete eta ez orain bezala, plastiko eta era guztietako zikinkeriaz beteak.

Horrez gain, esan nahiko genuke, proiektu honek ez lukeela ezer sunsituko, bakarrik landu gabeko lur batzuk berreraibili.

Adibide gisara, guri esan digutenez, Zubietan horrelako eraikin bat egin nahi zuten, ezetza eman eta handik urte batzuetara apartakaleku handi bat egin zuten. Hori bera errepikatzea nahi al dugu honelako proiektu bati ezetza emanez? Gure ustez ez!

Lur hauei nekazaritzarako erabilpena ematea ere proposatzen da, lanbide honi bultzada bat emateko asmoz, baina hala ere, ikusten denez ez zaie garrantzi bera ematen herri inguruan etxeak eraikitzeke galtzen ari diren lur-sailei, hauek eraikuntzekin ordezkatzen ari baitira.

Gainera, gure ustez, tristea bada ere, garai hauetan gero eta gutxiago dira nekazaritza munduan sartzeko asmoa azaltzen duten gazteak, eta beraz, ez litzateke logikoa izango, lur hauek nekazari-

### EZ PROIEKTUARI

Orio eta Usurbil artean egin nahi duten proiektuaren aurrean, gure aurkako iritzia azaldu nahi dugu. Gure ustez ideia honen ezkutuko arrazoiak kontsumismoa bultzatzea da, nahiz eta herriari alde erakargarria bakarrik erakutsi. Ekologikoki begiratuta izugarritzko hondamendia izango dela iruditzen zaigu hainbat ekosistemen desagerepena eragingo duelako. Hau esateko, hurrengo arrazoietan oinarritzen gara.

- Ekologikoak.

o Proiektu hau egiteko ibaia desbideratu nahi da eta horrek arazoak ekarriko ditu gerora. Gogoratu, adibidez, Huesca edo Katalunian gertatu zena.

o Usurbilgo udalaren asmoa lur hauekin etorkizunerako nekazaritza sustatzea zen, baina proiektu honen ondorioz ezingo da asmoa gauzatu.

o Proposamen horren helburua denonak diren naturguneak lurrik pribatizatu eta esplotatzea da.

o Lur horiei, nahitaez erabilpen bat eman beharko balitzaie, nekazaritzarako erabilitea iruditzen zaigu aukerarik egokiena. Baina, hala ere, natura inorena ez denez, jaberik ez bailuke eduki behar, zergatik ez bere horretan utzi ingurune hori naturak berreskura dezan?

o Urbanizazio bat eraikiko balitz Oria ibaiaren egoera tamalgarria oraindik negargarriagoa bihurtuko litzatekeela pentsatzen dugu, instalazio horiek sortutako kutsaduragatik.

- Ekonomikoak.

o Egitasmo honen ondorio nagusietako bat zera izango da: jendea herritik aldentu eta gune hartan bilduko litzateke, negozio txikiak kalteztuz.

o Bertan jarri behar dituzten zerbitzuak ez zaizkigu ezinbestekoak iruditzen eta gainera inguruko herrietan ere aurki ditzakegu.

o Instalazioak kirol garestiak egiteko dira (hipika, golfa,...) eta ez lirateke guztien eskura egongo

o Proiektu honek momentuan ekarriko duen gorakada ekonomikoarekin ez gaitzen itsutu, eta kontura gaitzen ekar ditzakeen ondorio ekologiko suntsigarrietaz.

o Aurrez aipaturiko aberastasun hori enpresa bultzatzailearentzat izan-

H ur  
ntz. k

K I N D E R T U 3 3 3

**K m**  
 MASAJE LEKUA  
 Kirol masajea eta masaje terapeutikoa  
 Kale nagusia, 44- behea  
 LASARTE-ORIA  
 TEL. 36 61 97

**PATRI**  
 JATEXEA  
 - Eguneroko menuak  
 - Plater kombinatuak  
 Ogitartekoak  
 Telef: 943 36 27 25  
 Kale nagusia, 14



# Lehiaketa !

**LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA! LEHIAKETA!**

Ezeiz asmatu hurrengo hiru galdera hauek?

1. Zenbat nekazaritza-etxe daude gure herrian? (1 puntu)
2. Zenbat urte daramatza alkatetzan Jose Antonio Altunak? (3 puntu)
3. Kalezarko plazan dagoen eskultura zein eskultorek egin zuen? ( 5 puntu)


Saria: **HERRIKO SAGAROTEGI BATEAN BI LAGUNENTZAKO BAZKARI EDER BAT!!!**

Oharra: Frantziarak bidaltzeko azken eguna martxoak 9



Aurreko galderen erantzunak:

1. Zein izen du Zubietako zubiak?  
Aliri
2. Zenbat zinta ditu herriko dema plazak?  
13
3. Zein urtetan sartu zen Usurbil UEMAn?  
1997ko ekainaren 15ean




Puntuazio gehien lortu dituztenen artean zozketa egin ondoren, irabazlea JOXE RIPLAU izan da. ZORIONAK! Zinemarako bi sarrera irabazi dituzu. Noauara denu era sarretak noiz jaso ditzakezuen esango dizugu.

Sailkapen nagusia

1. Joxepi Alkorta.....17 puntu
2. Jesus Tapiá.....17 puntu
3. Olac.....15 puntu
4. Jose Mari Azpiroz.....15 puntu
5. Arania.....13 puntu
6. Mer.....12 puntu
7. Iva.....12 puntu
8. Joxe Ripiau.....9 puntu
9. Amama.....9 puntu
10. Aitz.....8 puntu

# Denborapasak !

Egilea: LUMA, O.E. ● Usurbilgo jauregia

	Ehizatzen dute	Errenkadak	Lurrerantz makurtu	Beldurti	Tokia
	Botere-dunak	Apaiz	4. eta 19. letrak	Ni	
	Iparraldeko				
	Nirea				
Zurginak	Zerbait		Listuak		
Emakume izena	●		Afrikako estatua		
				Tantaloia	
				Animalia mota	
Landare mota		Errep., gorotza		Zendu	
Emakume izena		Azti ezaguna		499	
			3		Bokala
			Ezeza		Suitzako ibaia
Her. hizk., zer	Pl., itsas ugaztuna				
Ikuskizun muga	2				
		Suari dario		Nauka	
		Uranioa		Sufrea	
Ergela			Lapurdikoa herria		

### Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	20.33*	20.50*	20.38*	20.54*	21.09*
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

\* Astegunetan bakarrik

### Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.45	08.05	08.30	08.30
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.20	09.30		08.15	08.35	09.00	09.00
09.00	09.25	09.35	09.55	08.45	09.05	09.30	09.30
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.40
10.00	10.25	10.35	10.55		09.30	09.35	10.00
10.40		11.05	11.25	09.45	10.05	10.30	10.30
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45**	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05	11.30	11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05	12.30	12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05	13.30	13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05	14.30	14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05	15.30	15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05	16.30	16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05	17.30	17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05	18.30	18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05	19.30	19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05	20.30	20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35	00.00	00.00
00.00		00.25	00.45	01.15	01.35	02.00	02.00
02.00		02.25	02.45	03.15	03.35	04.00	04.00
04.00		04.25	04.45	05.15	05.35	06.00	06.00
06.00		06.25	06.45				

\*\*Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

Soilik larunbata gauzez

Asteburutan Larunbat lanegunetan

## Goardiako farmaziak

Otsailak 28, ostirala

E: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.  
G: Aizpuru, Latxunbe berri, 11 Hernani

**Martxoak 1, larunbata**

E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte  
G: Correa, Perkaiztegi, 8, Hernani.

**Martxoak 2, igandea**

E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte  
G: Correa, Perkaiztegi, 8, Hernani.

**Martxoak 3, astelehena**

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte  
G: Bilbao, Urbietta 7, Hernani

**Martxoak 4, asteartea**

E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte.  
G: Gomez, Kale Nagusia 14, Hernani

**Martxoak 5, asteazkena**

E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte  
G: Bulnes Exeberri, B Florida Hernani

**Martxoak 6, osteguna**

E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: Gorospe Rikardo Arregi, 12 Andoain

**Martxoak 7, ostirala**

E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Zatarain Arteta kalea, z/g Andoain

**Martxoak 8, larunbata**

E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: Bilbao, Urbietta 7, Hernani

**Martxoak 9, igandea**

E: Urbistondo, San Frantzisko, 1 Lasarte  
G: Bilbao, Urbietta 7, Hernani

**Martxoak 10, astelehena**

E: De Miguel, Nagusia 32. Lasarte.  
G: Ansa Ondarreta, 8 Andoain

**Martxoak 11, asteartea**

E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte  
G: Arzallus Aita Larramendi, 16 Andoain

**Martxoak 12, asteazkena**

E: Gil, Kale Nagusia, 24 Lasarte.  
G: Diaz Kale Nagusia, 19 Andoain

**Martxoak 13, osteguna**

E/G: Elizondo, Zumea 20, Andoain

**Martxoak 14, ostirala**

E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte  
G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

*E: egunez. G: gauzez (21:00etatik 09:00etara). E/G: Egunez eta gauzez*

### Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**  
Zubieta-Donostia  
7:55\*/9:30(T)/13:15(T)/14:35\*(T)/19:15(T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazaatik)  
7:15\* /9:00/ 12:45(T)/ 13:45\*/18:45

**LARUNBATETAN**  
Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazaatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**  
Zubieta-Donostia  
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta**  
(Gipuzkoa plazaatik)  
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

\* Eskola egunetan  
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

### Datorren Noaua!

**Martxo**

As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
						1 2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Hurrengo alea

## Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Kalezar)..... 36 45 00
- Agerialde ikastetxea..... 36 38 95
- Oiardo kiroldetgia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarrea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

## Oharrak !

## Txerrimunik ordainetan !

### ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.
- Konpartitutako pisu baten bila nabil alokatzeko. Deitu 5:30etatik aurrera. 637 193 100.
- Pisu bat saltzen dut. Munalurra 4, 4 A. Telefonoa: 943 37 10 44.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Txaramuton 30 m2-ko garaje itxia. Deitu 666 646 847 zerbakira.
- Galtzaragaina elkarte bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaraginan 200 eta 300 m2-ko bi bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaraginan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77.
- Garaje itxiak saltzen ditut, Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro. 15 m, 7.800 euro. 26 m, 9.000 euro. Telefonoa: 656 759 583.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauz. 943 371447 (Belen).
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauz edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan, Deitu hona: 652 757 495.

### Lan-eskaintzak

- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira. Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.
- Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- Tabernari bat behar da Txurrit tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Argazki kamara bat dut salgai: Pentax MZ 50. Objektiboa 1:4-5.6 35 mm-80mm. Instrukzio liburua. Eramateko boltsa. Zozketan saritua. 625 70 51 14 (arratsgautan).
- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 8 urteko mutil koxkor baten txamarra galdu da, Reebok markakoa. Inork aurkitzen badu deitu, 943 36 06 43 telefonora.
- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.
- Kotxe bat salgai, SS-AP. Elbarrituentzat egokitua. Garajea zaindutakoa. 943 36 43 10 (gauz deitu).
- Aixam autoa salgai (ez du gida-baimenik behar). 943 55 08 47.
- Usurbilgo frontoian egurrezko patinete txiki bat galdu da. Aurkitzen duenak mesedez kiroldegiko tabernan utzi edo deitu dezala 943 366 953 telefonora.
- Ford Transit salgai. 5 urte ditu. Prezio onean utziko nuke. 656 759 583.
- Katu polit bat oparitzen dut. 9 hilabete-koa. Emea. 637 193 100.
- Trial bizikleta bat dago salgai. Monty X-DRYA. Interesatuak deitu 943 37 26 46.

### Zorionak Aizpea!

Otsailaren 27an 4 urte bete zenituen. Zorionak eta muxu handi bat amatxo eta aitatxoren partez!



### Zorionak Leire!!

Martxoaren 4an bederatzi urte egingo ditu gure etxeko printzesak. Ondo pasa eta muxu handi bat zure anaia-aren, gurasoen eta aiton amonen partetik.



### Zorionak Janire!!

Zorionak Janire Rodriguez. Otsailaren 8an urtetxo bete zenuelako, muxu asko etxeko guztien partetik.



### Zorionak Marijose!!

Aurtengoa ospakizun berezia izango da. Eta denok ondoan izango gaituzu zure eguna ospatzeko. Muxu pilo bat etxekoan partez!



### JAIOTZAK

- **Irati Galardi Lizarraga**  
2003-II-9. Aizpurrenea etxea.
- **Ekhi Camino Jimenez**  
2003-II-11. Puntapax.
- **Garikoitz Artola Obando**  
2003-II-16. Kaleberri.

### HILDAKOAK

- **Maria Victoria Gomez**  
2003-II-17. Sendategian.

**Txerrimunik ordainetan - Oharrak,**  
doaneko zerbitzuak dira.

Noaua! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3  
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil  
noaua.k.e@euskalnet.net

**IGELTSE ITZ**  
t  
**INTU**

943 366 759

**EUSKAL OKELA**

**LK T**  
**UT ZE ITZU**

**F OT K**  
**ZKI K**  
**OKTU K**  
**K NOEL TU K**

**ETXEK**

**h k k l , 4**  
**T H 133 57 12**

CAMPE DE SACRINO DE CALLE DEL PAIS VASCO

**I lts r tz**

Mugikorra: 649435475  
649435476  
943 363370- 361439

## Agenda !

### MARTXOAK 1 - larunbata

- Iñauteriak. 10:30etatik aurrera tailerrak eta jokuak umeentzat pilotalekuan. 19:00etan desfilea, txarangaz lagundurik. Desfilean lehiaketa egongo da. 21:00etan sari banaketa pilotalekuan. Gauerditik aurrera, txaranga.



### MARTXOAK 1/2 - larunbata

- Landare berezien Lehen Azoka Iturrarango Lorategi Botanikoan. Ordutegia: 10:00etatik 17:00etara. Prezioa: 3 euro (garraioa, pertsonena nahiz erositako landareena, barne). 12 urterainoko haurrak doan. Martxoaren 1ean eta 2an.

### MARTXOAK 3 - astelehena

- Odol ateratzea, 19:00etatik 21:00etara herriko anbulategian.

### MARTXOAK 5 - asteazkena

- Azoka Askatasuna Plazan. Goizez.

## Musikaren txokoa !



### “Haatik”, Amaia Zubiria

Amaia Zubiriak (Zubieta, 1947), euskal kantagintzako sentikortasunik handieneko ahotsa izateaz gain, erreperitorio herrikoia ezagupen sakona du. Haizea taldean Txomin Artolarekin batera ibili zen eta bide handia egin zuten elkarrekin. Urte askoan aldenurik ibili ondoren, Euskal Herriko kantu herrikoia inguruan Folk Lore Sorta deritzan bilduma eder bezain interesgarri bat sortzeko asmotan bildu ziren berriro.



"Haatik" bakarka kaleratzen duen laugarren diskoa da, eta honen bidez begirada bat botatzen dio bere iraganari; hala, garai zaharretako zenbait abesti errebisatzen ditu eta aspaldiko kantuetako sentimenduak berreskuratzen; baina, horiekin batera, 7 kantu berri ere oparitzen dizkigu, bihotzetik bihotzera.

Madriren SGAE erakundeak antolatu duen “Premios de la Música” delakoan nominazioa jaso du hizpide dugun lan honekin.

## Egin kontu !

### Maiatzaren 3an ospatuko da Izarran “Elkartasun... Etorkizuna” festa

Aitzaga Kultur Elkartea eta Nafartarren Lagunak taldeek antolatu zuten iaz “Elkartasuna... etorkizuna” festa. Zazpi herrialdeetako ordezkariak bat egin zuten Usurbilen. Xede nagusia hori baitzen: herrialde guztien arteko harremanak sendotzea.



Aurten Arabako Izarrak jasoko du festa honen lekukoa. Maiatzaren 3an ospatuko da eta, iaz bezalaxe, zazpi herrialdeen topaleku izango da “Elkartasuna... etorkizuna” festaren bigarren edizioa.

Jada hasi dira prestaketa-lanak. Otsailaren 22an egin zen lehen afari-bilera Urdaira sagardotegian.

Maiatzaren 3a bitartean badute zer eginik. Hasi behintzat, ondo hasi dira gauzak. Horrela jarrai dezala!

### ESTETIK ZENT

#### LUESL G

- (z  
 - ur tr t m n u  
 - M n ur  
 - r l n rru n ut t t nt  
 - z l r t sum  
 - M l  
 - M s  
 - S l r un:

Ir z u k l , 12- h  
 T l f 3 3 2 7

### al , p s t e r a



Juan de Garay kalea  
 20160 Lasarte-Oria

F t x k  
 F l k k k l r i n  
 l s t k z k ( I N 2 + )  
 F x z r t z u ( s - m - i z k )  
 l n n k k ( + )  
 r a n k a k  
 E n k u - s l k ( w r - . k r l k l u n )  
 Z u r - z k u z l - n

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

ERRETEGIA  
**ARRATZAIN**  
TOLARE-SAGARDOTEGIA

Arratzain Zahar  
Baserrria  
Telf: 943 58 09 74  
20170 USURBIL



- Urtariletik apirila arte sagardotegia irekita. Urte osoan erretegia.
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- 150 lagun, eserita nahiz zutik

APROBETXA  
ITZAZU  
BAZKIDE  
ABANTAILAK!



*Tapak urtez urte*



**Koadernatu  
2002ko  
Noaua!  
guztiak!**

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak  
**EUSKAL HERRIAN BARRENA**  
ekimenerako arduraduna behar du

**Eskaintzen du:**

- Txango eta bidai didaktikoen alorrean lan egiteko aukera.
- Zatikako lan-hitzarmena (hilean ordu batzuetakoa).
- Lan-ordutegia nor bere gogora antolatzeko aukera.
- Ekimena garatu eta zabaltzeko aukera.

**Eskatzen du:**

- 27 urtetik gorakoa izatea.
- Unibertsitate lizentziatua izatea (edo gaitasun baliokidea).
- Gizataldeak gidatu eta zuzentzeko gaitasuna.
- Ekimenak hartzen duen lurraldeari buruzko eduki pedagogikoak lantzeko gaitasuna.

**Bidali Curriculum vitae-a:**

Dr. Huizi kalea , 1.eskuina - 20140 ANDOAIN (GIPUZKOA)  
44. postakutxa - 20150 AMASA-VILLABONA (GIPUZKOA)



# Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



## TXOTXETIK

- Urte guztian egunero irekita, astelehenetan izan ezik

- Telf: 943 36 67 10  
943 37 06 68

## AGINAGA sagardotegia



AGINAGA

## Araeta



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera!

Telf: 943 36 20 49 943 36 66 04  
Faxa: 943 36 60 73  
Arbirza bidea, 20.160 ZUBIETA  
[www.araeta.com](http://www.araeta.com)

## ASTIAZARAN sagardotegia



Zubieta, Telf: 943 36 12 29

- Urtarrilaren 9tik aurrera irekita eguerditan eta gutxitan
- Astelehenetik larumbatera irekita
- Menua: 21 euro

Egin txotx!

*Zain duzu aurtengo sagardoa, Txotx!*

## SAIZAR Sagardotegia

Kale-zahar Auzoa, 33

ZUBIETA  
GIPUZKOA

Tel. 943 362 228

[WWW.SIDRASSAIZAR.COM](http://WWW.SIDRASSAIZAR.COM)

